



Deialdi honen xede diren ikasleentzat deitzen diren plazak hiru tartetan banatzen dira, hezkuntza-mailaren arabera, hizkuntza eta herrialde bakoitzeko, eta horiek partaidetza-kuota bat zehazten edo erabakitzen dute familien goera ekonomikoari erreparatuta. Hauxe da banaketa:

Herrialdea eta hizkuntza	1. TARTEA		2. TARTEA		3. TARTEA		PLAZAK, GUZTIRA
	DBH	BATX.	DBH	BATX.	DBH	BATX.	
1. Ingelesa Irlandan	72	108	50	76	22	32	360
2. Ingelesa Erresuma Batuan	76	114	53	80	23	34	380
3. Frantsesa Frantzian	40		28		12		80
4. Alemana Alemanian	15		11		4		30
Plazak, guztira	425		298		127		850

Hizkuntzak ikasteko ikastaroak antolatzeko lehiaketan, 19 plaza gehituko zaizkio Erresuma Batuari dagozkion plazei. Batxilergoko Aparteko Saria lortu duten 15 pertsonentzat eta matematika-olinpiadan lehen lau postuak lortu dituzten DBHko 2. mailako ikasleentzat izango dira plaza gehigarri horiek. Atzerrian hizkuntzak ikasteko plaza horiek hurrengo atalean adierazten direnen antzeko edukia izango dute.

Kontzeptu hauek izango ditu deitutako plaza bakoitzak: joan-etorriko bidaia EAEko hiru hiriburuetatik ikasleak egonaldia egingo duen herrialdera, bidaia-asegurua, egingo duen hizkuntza-ikastaroaren matrikula eta eskola-materiala, alojamendua, mantenu-gastuak eta ikastaroa emango den zentrorako hiri-garraioa.

Deitutako plazak erabiltzeko eskubidea eskuratzen dutenek, plaza horri dagokion ekarpen ekonomikoa egin beharko dute:

LEHEN TARTEA: 200 euro.

BIGARREN TARTEA: 400 euro.

HIRUGARREN TARTEA: 800 euro.

Tarte bakoitzeko plazak eskuratu ahal izateko, familia-unitateko kideen urteko errenta indibidualak honako tarte hauetan izan behar du:

Lehen tarte: 8.000 euro baino txikiagoko errenta indibiduala.

Bigarren tarte: 8.000 euro edo handiagoko errenta indibiduala, baina 14.000€-koa baino txikiagoa.

Hirugarren tarte: 14.000 euro edo handiagoko errenta indibiduala.

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA**Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza
*Pedagogia Berriztapeneko Zerbitzua***DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**Dirección de Innovación Educativa
Servicio de Innovación Pedagógica

Urteko errenta indibiduala kalkulatzeko, familia-unitateko kideen artean zati behar da familiaren errenta. Horren harian, familia-errentaren zenbatekoa eta familia-unitateko kideen kopurua zehazteko, deialdiaren aurreko ikasturtean unibertsitatekoak ez diren ikasleen bekak eta laguntzak izapidetzeko erabili ziren irizpideak baliatuko dira.

Ikasleak ez badu parte hartu, eskaera aurkezten duen dataren aurreko ikasturte akademikoan, unibertsitatekoak ez diren ikaskuntza-mailetako ikasleei ikasketetan laguntzeko beken eta laguntzen deialdian, bere eskaera hirugarren tartean kokatuko da.